

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 100/2020 FORU DEKRETUA,  
azaroaren 24koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen  
kudeaketari buruzko Araudia aldatzen duena,  
Administrazio Elektronikoaren arloan  
(BAO Azaroaren 26ko)**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak, zioen azalpenean, lehenetsuneko helburu gisa ezartzen du zerga-administrazioaren eta zergadunen arteko harremanetan teknika eta bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoko erabiltzea eta aplikatzea sustatzea. Helburu hori Foru Arauaren artikuluetan eta hura garatzeko erregelamenduzko xedapenetan jaso da, eta aipatutako teknikak eta bitartekoak erabiltzea sustatu da zergadunen zerga-betebeharrak betetzeko eta Foru Ogasunarekin lotutako beste zerbitzu batzuk emateko.

1986ko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra indarrean zegoela, lehen urratsak eman ziren norabide horretan. Izan ere, 2000. urtean, bulego birtual bat edo ingurune seguruko transmisio telematikoko plataforma bat ezarri zen, identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema propio batekin, haren bidez, Ogasun eta Finantza Sailarekin izan beharreko zergen arloko harremanak gauzatzeko: Bizkaibai Zerbitzua.

2009an, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia onartu zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren garapen gisa. Arau horren II. tituluko IV. kapituluan, zergen kudeaketan bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen da, eta ordura arteko xedapen gehienak bateratzen dira, bai Bizkaibai Zerbitzuari dagokionez, bai administrazioaren eta zergapekoen arteko harremanak bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoen bitartez bideratzeari dagokionez ere.

Arau-esparru horren babesean, Foru Ogasunak aplikazio eta prozesu automatizatu ugari eta komunikazio telematikoko hainbat kanal garatu ditu, eta, horiei esker, zergadunen zerga-betebeharrak betetzea errazten eta arintzen da.

Bizkaiko zerga-administrazioak aurrerapen handiak egin ditu zergapekoei laguntza emateko baliabide informatikoak, elektronikokoak eta telematikokoak apurka-apurka gero eta gehiago erabiltzearen alde. Bide horretako mugari berrienen artean, nabarmentzekoak dira 2017an zerga-betebehar bakoitzerako berariazko laguntza-programak BILA plataforman sartu izana edo Rentanet Etxean sistemari atxikitako zergadunen kopuruak etengabe gora egin izana, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bidez 2021ean egingo den kanpainan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun guztiengana iristeko erronka bere gain hartu arte. Rentanet Etxean sistemaren antzeko kalitate eta intentsitateko laguntza-zerbitzu bat eskainiko du, eta, gainera, ondarearen gaineko zergaren zergadunei ere aplikatuko zaie. Mugari berriena eta berritzaileenetakoa izan da Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean jasotako aurreikuspenetan modu iraunkorrean sartzea tributu-jarduketa batzuk aurrez aurrekoa ez den modalitate batean, hau da, bideokonferentziaz edo bide telematikoen bidez egin ahal izateko mekanismoak. Neurri hori hartzea beste neurri batzuen jarraipena izan da, hain zuzen ere, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren 1106/2020 Foru Aginduaren bidez aldi baterako onartu ziren neurriena (martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailea, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzkoa, tributu-jarduketa jakin batzuk aurrez aurrekoa ez den modalitate batean, hau da, bideokonferentziaz edo bide telematikoen bidez egin ahal izateko mekanismoak arautzekoa).

Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzkoak, ezarritako esparru juridikoan, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa abiarazi zen, Lehendakarietzako foru diputatuaren maiatzaren 22ko 4040/2015 Foru

Aginduaren bidez. Egoitza elektronikoa hiru urte lehenago sortu zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 17ko 77/2012 Foru Dekretuaren bidez (Bizkaiko Foru Aldundiaren 77/2012 Foru Dekretua, apirilaren 17koa, zeinaren bidez sortzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eta arautzen baitira Bizkaiko Foru Administrazioaren egoitza elektronikoak).

Bere egoitza elektronikoa martxan jarri ondoren, herritarrei sailletako bulego birtualetatik ematen zaizkien zerbitzu telematikoak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora migratzeko prozesu bati ekin zion Bizkaiko Foru Aldundiak, administrazio elektronikoari buruzko araudian ezarritakoarekin bat.

Ogasun eta Finantza Sailari dagokionez, pixkanaka-pixkanaka ekin zaio migrazio- prozesu horri. Hala, 2018an amaitu ziren zergapekoei jakinarazi edo komunikatu behar zitzaizkien ia administrazio-egintza eta erabaki guztien jakinarazpena Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sartu ahal izateko beharrezko ziren garapen teknologikoak, eta, aldi berean, gaur egun Bizkaiko Foru Aldundiaren bidez ematen diren Ogasun eta Finantza Sailaren zerbitzu telematikoak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sartu ahal izateko behar ziren prozesu teknologikoak inplementatu dira.

Duela gutxi, Bizkaiko Foru Aldundiak Foru Administrazioaren dokumentuen erregistro elektronikoen araudi integrala onartu du Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 4ko 6/2020 Foru Dekretuaren bidez, zeinaren bidez dokumentuen erregistro elektronikoro korra arautzen den, 2015ean onartutakoa ordezkatu eta eguneratu egiten duena. Era berean, araudi zehatzago bat onartu du, bereziki, urriaren 13ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 89/2020 Foru Dekretuak sortu eta araututako ahalordeen erregistro elektronikoro korra buruzkoa, Foru Dekretu horren arabera, antolakuntzako azpiegitura teknologiko bera erabiliko da Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoro korren eginkizunak garatzeko, tributuak aplikatzeko jarduketa eta prozedurei dagokionez, betiere zergen kudeaketaren ezaugarriek dituzten berezitasunak alde batera utzi gabe.

COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerak eragin nabarmena izan du Foru Ogasunak zerga-administrazio erabat elektronikoro baterantz aurrera egiteko ezarritako helburuan, eta, egoera horren ondorioz, asko atzeratu da migrazioa oso-osorik egiteko beharrezkoak ziren egokitzapen-prozesuak amaitzeko data. Izan ere, ez dira amaituko 2021eko abuztuaren 1era arte.

Foru Dekretu honek artikulua bakarra du, hiru apartatu desberdinekin, eta bakoitzak ondorioetarako data espezifikoak ditu. Horrez gainera, xedapen gehigarri bat, bi xedapen iragankor, horien edukia oso garrantzitsua da administrazio elektronikorako trantsizioa osatzeko eta xedapen indargabetzaile bat ditu.

Foru Dekretu honen artikulua bakarraren lehenengo atalean, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudian egindako aldaketak sartzen dira. Aldaketok 2021eko abuztuaren 1era arte izango dituzte ondorioak. Hala, egindako aldaketen artean, aipatzekoa da Bizkaiko Foru Ogasunaren ideia, hau da, ahal dela, zergadunari laguntza baliabide telematikoak erabiliz ematea, eta Ogasun eta Finantza Saileko foru- diputatuaren foru-agindu bidez zehaztuko da zein den laguntza horren helmena, eskura dauden baliabideak eta aplikatu beharreko teknologiararen egoera kontuan hartuta, bai eta laguntza hori eman dezaketen langileak nor diren zehaztu ere. Horren osagarri, zergapekoei telefono bidez laguntzea aurreikusten da, bai eta esku hartzen duten alderdiak identifikatzeko behar diren kontraste-baliabideak erabiltzea ere.

Garrantzi handiko beste gai bat da zerga-administrazioarekin Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoren bidez harremanetan jartzeko betebeharra egongo den kasuak jasotzea, zerga-kudeaketa errazteko eta herritarrei ematen zaien laguntza hobetzeko. Nabarmendu behar da, alde batetik, zerga-administrazioak ezar dezakeela zerga-betebehar jakin batzuk bide horretatik bete behar direla, eta, bestetik, zerga bakoitzari dagozkion arauak edo zerga-betebehar formalak edo informazioa ematekoak arautzen dituzten beste arau batzuek ezartzen dezaketela egoitza elektronikoren bidez harremana izateko betebeharra dagoela.

Era berean, ordezkariari dagokionez, ahalordetzeen erregistro elektronikoa indarrean jarri ondoren, zehatz-mehatz arautu dira ordezkariak zergen arloan Bizkaiko Foru Aldundiaren

egoitza elektronikoa jarduteko dituen ahalmenak, eta, horrez gain, egiaztapen- kasu espezifikoak ezarri dira, besteak beste, administrazioak ordezkariari zerga- betebeharrak betetzeko gakoak ematea. Era berean, eutsi egiten zaio zerga-arloan egon den berezko espezialitateari, beste pertsona batzuen izenean elkargokide diren profesionalak egoitza elektronikoa erabiltzeko aintzatetsitako erakunde eta elkarteekin egindako lankidetzak-hitzarmen edo -akordioei dagokienez.

Zergen kudeaketa arautzen duen araudiaren sistematika hobetzeko helburuarekin, martxoaren 20ko 50/2012 Foru Dekretuaren edukia sartu da Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudian (50/2012 Foru Dekretua, martxoaren 20koa, Ogasun eta Finantza Sailaren bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpen eta komunikazioak arautzen dituena), administrazio elektronikoen zergen arloko arau-esparru berrira egokitzeko; eta, beraz, azken hori indargabetu egin da.

Foru Dekretu honen artikuluko bakarraren bigarren apartatuari dagokionez, ordezkariari eragiten dioten aldaketekin jarraituz, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 70. artikulua jasotzen da, zeina legezko ordezkariaraz arduratzen den. Ildo horretan, eta 2021ko otsailaren 28tik aurrerako ondorioekin, zehazten da zerga-administrazioak zer lau kasutan inskribatuko duen ordezkariaraz ofizioz zerga- administrazioaren ahalordeteeen erregistro elektronikoa orokorrean. Hala, ordezkariaraz ofizioz inskribatuko da ezkontidea edo izatezko bikotea hiltzen bada, adingabeen kasuan, nortasun juridikorik gabeko erakundeenean, eta likidatu gabe azkentzen edo desegiten badira nortasun juridikoa duten sozietateak eta erakundeak.

Azkenik, artikuluko bakarraren hirugarren apartatuan, eta Foru Dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrerako ondorioekin, zehaztapen tekniko bat ezartzen da, eta zerga- ziurtagiriaren baliozkotasun aldia arautzen duen apartatua aldatzen da. Azkenik, zerga- laguntzaren eremuan sartzen da aitortenaren eta/edo autolikidazioaren zirriborroak egiteko aukera, zerga-betebeharrak betetzea eta Ogasun Sailari atxikitako langileen parte-hartze aktiboa errazteko; hori guztia, aipatutako Rentanet Etxean sistema Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren esparruan nabarmen hobetzen duen prozesu telematikoa ezartzeko prozesuaren barruan. Zirriborro horiek beste zerga batzuetan ere egin daitezke.

Xedapen gehigarri bakarrari dagokionez, bereziki nabarmendu beharreko mugarri bat jasotzen du: alde aurretik ezarrita ez badago, zerga-betebehar guztiak telematikoki bete beharko dira, baita formalak ere, zergaldia, aitorten-aldia edo likidazio-aldia 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten zaien edo data horretatik aurrera sortzen diren zergei dagozkienak. Kasu horietan, Ogasun eta Finantza Sailarekin bide telematikoz harremanetan jartzeko betebeharra ere sartuko da. Bide telematikoz harremana izateko betebehar hori bera aplikatuko zaie, halaber, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera egin beharreko eragiketei dagozkien informazioa emateko betebehar orokorrei. Horrez gainera, zehazten da xedapen gehigarri honetan aipatzen diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez soilik bete beharko diren zerga-betebeharren zerrenda, bai eta horiek betetzeko baldintzak eta bidezkoak diren salbuespenak ere, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren foru-agindu bidez ezarriko direla.

Halaber, nabarmendu behar da xedapen honetan garrantzi berezia duela zuzenbide iragankorrak. Izan ere, lehenengo xedapen iragankorrean, aukera ematen zaie zergadunei eta kasu eta egoera jakin batzuetan ere, haien ordezkariari, nahi izanez gero, egoitza elektronikoen bidez jarduteko, 2021eko abuztuaren 1ean tributuen arloan jardun elektronikoa hori nahitaezko bihurtu arte. Ordura arte, Bizkaibai zerbitzuarekin batera erabili ahal izango da egoitza elektronikoa. Bestalde, araudi honetan araututako ahalordedunaren ahalmenen eta Bizkaibai zerbitzuan sartutako arteko korrespondentzien araubidea ezartzen da.

Bigarren Xedapen Iragankorrean arautzen dira Bizkaibai Zerbitzua telematikoki erabiltzeko hitzarmenen edo akordioaren esparruan emandako ordezkariaraz ahalordedunaren baliozkotasunari eusteko baldintzak, 2021eko abuztuaren 1etik aurrera Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez jarduteko.

Hori guztia dela eta, aldatu egin behar da Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onartua, azaldutako mugarrekin bat datozen arau-egokitzapenak egiteko.

Adierazi behar da Foru Dekretu honen izapidetzea arau hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretzeko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2020ko azaroaren 24ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT:

**Artikulu Bakarra. Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia aldatzen da; Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.**

**Lehena.** 2021eko abuztuaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudian, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen:

**Bat.** Berridatzi egin da 32. artikuluko 1. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«1. Zerga betebeharrak betetzeko laguntza, lehenetsunez, bide telematikoak erabilia eskainiko da. Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuaren foru-agindu bidez, eskura dauden baliabideak eta aplikatu beharreko teknologiaren egoera kontuan hartuta, kasu bakoitzerako zehaztuko da zein den laguntza horren helmena, zer pertsonaren bidez eskainiko den, eta aurkezteko modua eta betekizunak. Halaber, bide telematikotik emandako laguntza hori automatizatuta zein kasutan emango den zehaztuko da, araudi honetako 38. artikuluan ezarritakoari jarraiki».

**Bi.** 32. artikuluko 2. apartatuari bigarren paragrafo bat gehitu zaio, honako hau:

«Zehazki, telefono bidezko laguntza eskainiko zaie zergapekoei.»

**Hiru.** Berridatzi egin da 36. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«36. artikulua. Teknologia informatikoak eta telematikoak erabiltzea

1. Kudeaketa eginkizunak betetzen dituzten organoek sustatu egingo dute beren jarduerak garatzeko eta beren eskumenak baliatzeko behar diren teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzea.

2. Zerga Administrazioak ezarri ahal izango du zerga-betebeharrak eta Ogasun eta Finantza Sailarekiko harremana Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez soilik betetzea, zergapekoen egoera edozein dela ere, eta araudi honen 32. artikuluan betebeharrak horiek betetzea errazteko aurreikusitako laguntza- lanak eskainiko dira.

3. Beren zerga-betebeharrak betetzeko eta Ogasun eta Finantza Sailarekin harremanetan jartzeko betebeharrak izango dute, Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez:

a) Pertsona juridikoek, erakundeek eta sozietateen gaineko zergaren gainerako zergadunek.

b) Jarduera horiekin lotutako jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoek.

c) Jaraunspen jasogabeek, ondasun-erkidegoek eta nortasun juridikorik gabeko gainerako erakundeek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34.3 artikuluan adierazten direnek.

d) Aurrekoak ez diren beste batzuek, hala ezarrita badago zerga bakoitzaren araudian, zerga-betebeharrak formalen araudian edo informazioa emateko zerga-betebeharrak buruzko araudian.

4. Aurreko apartatuan xedatutakoari kalterik egin gabe, zergapekoek zerga-administrazioarekin harremana izateko eskubidea izango dute, beren eskubide eta betebeharrak erabiltzeko teknika eta

baliabide elektronikoan, informatikoan edo telematikoan bitartez, prozedura bakoitzean ezarritako berme eta betekizunekin.

5. Era berean, zerga-izaerako beste zerbitzu batzuk erabiltzeko derrigortasuna ezarri ahal izango da inguruabarrek hala egitea gomendatzen dutenean, kontuan izanik, batetik, errealitate sozioekonomikoa, eta, bestetik, zenbait agente ekonomiko eta soziali eska dakiekeen erantzunkidetasun fiskala.

6. Teknika eta baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiltzen direnean, errespetatu egin beharko da datu pertsonalen babeserako eskubidea, kontuan harturik zer ezartzen den Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, zeinak 95/46/EE Zuzentaraua derogatzen duen.

7. Zergen arloko jardunak eta prozedurak jasotzen dituzten administrazio espedienteak, lehentasunez, euskarri elektronikoan jasoko dira, teknologia informatikoak edo telematikoak erabilia, atal honetan ezarritako baldintzak eta mugak kontuan hartuta.»

#### **Lau.** Berridatzi egin da 37. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«37. artikulua. Identifikazio-, autentifikazio- eta sinadura-sistemak

1. Zerga-administrazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzkoak, 14.etik 18.era bitarteko artikuluetan eta hura garatzen duen araudian ezarritako edozein sistema erabiliko du elektronikoki identifikatzeko eta sortzen diren dokumentu elektronikoak autentifikatzeko.

2. Zergapekoek harreman elektronikoa izango dute zerga-administrazioarekin, eta, horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren 10.etik 13.era bitarteko artikuluetan eta hura garatzeko araudian ezarritako identifikazio-, autentifikazio- eta sinadura-sistemetak edozein erabili ahal izango dute. Era berean, zerga bakoitzari dagokion araudiak, edo zerga-betebehar formalak edo informazioa ematekoak arautzen dituenak, beste sistema batzuk ezarri ahal izango ditu zergapekoak identifikatzeko, autentifikatzeko eta sinatzeko.

3. Jarduketak telefono bidez egiten diren kasuetan, zerga-administrazioaren esku dauden kontraste-datuak erabili ahal izango dira, datu horien bidez, jarduketak zein zergapekoekin egiten diren identifikatzeko.»

#### **Bost.** Berridatzi egin da II. tituluko IV. kapituluaren 3. ataleko 2. azpiatala, eta honela idatzita geratu da:

«2. azpiatala. Bide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiltzea Ogasun eta Finantza Sailarekiko harremanetan»

#### **Sei.** Berridatzi egin da 41. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«41. artikulua. Ogasun eta Finantza Saileko zerbitzu elektronikoak, informatikoak eta telematikoak

1. Ogasun eta Finantza Sailak beharrezko teknika eta baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzea erraztuko du, horren bitartez zergadunek zerga-betebeharrak bete ditzaten eta horiekin zerikusia duten beste zerbitzu batzuk eman daitezten.

2. Ogasun eta Finantza Sailak ematen dituen zerbitzu telematikoetara iristea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eta www.bizkaia.eus atariaren bitartez egingo da; Bizkaiko Foru Aldundiak herritarren eskura jarritako egoitza elektronikoaren helbidea da, eta informazioarako sarbidean eta jardueren izapideetan segurtasun-berme guztiak eskaintzen ditu.

3. Egoitza elektronikotik, zerga-izaerako zerbitzu ezberdinak eskuratuko dira, eta, horietarako, interesdunak identifikatu egin beharko dira, helburu horretarako ezarritako identifikazio-sistemak erabiliz, araudi honen 37. artikuluen 2. apartatuan xedatutakoaren arabera.

4. Zerga-administrazioak zehaztuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin daitezkeen zerga-izapide eta -kudeaketak, kontuan harturik zer baliabide dagoen eskuragarri eta zein den aplikatu beharreko teknologiaren egoera.»

#### **Zazpi.** Edukirik gabe geratzen dira 42.etik 49.era arteko artikulua, biak barne.

#### **Zortzi.** Berridatzi egin da 53. artikuluko 3. apartatua, eta honela geratu da idatzita:

«3. Teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoan bidez eskuratzen dena behin-behinekoa izango da prozesatzen den arte. Aurkezpenak egokitzen ez zaizkienean aplikatu beharreko araudiak ezarritako diseinu eta gainerako zehaztapenei, aitorpenaren egileari eskatuko zaio 10 eguneko epean ageri diren akatsak konpon ditzala. Epea berriematea egiten den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da. Behin epe hori igarota, Administrazioari datuak ezagutzea galarazten

dioten akatsak mantentzen badira, eskaeran atzera egin dela ulertuko da edo kasuan kasuko betebeharra bete ez dela ulertuko da.»

**Bederatzi.** 69 bis artikulua gehitu da III. tituluko I. kapituluaren 5. atalean, eduki honekin:

«69 bis artikulua. Ordezkaritza

Ordezkaritza-ahalordearen arabera, zergapekoen ordezkariak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez Ogasun eta Finantza Sailean egin ditzaketan jarduketak eta izapideak egiteko, kontuan hartu beharko dira eskura dauden baliabideak eta aplikatu beharreko teknologiaren egoera kontuan hartuta gaituta daudenak, eta ahalmen mota hauekin bat etorrita egingo dira:

— A ahalmenak: Interesdunak eskatuta abiarazitako prozeduretan eskaerak eta idazkiak aurkeztea, dokumentuak aurkeztea, eskaerak borondatez eta kasuan kasuko organoak eskatuta zuzentzea. Eskaera zuzendu eta hobetuz eratorritako jakinarazpenak jasotzea barne hartzen du, eta ahalmena ematen du lehen adierazi diren jarduketekin lotutako datuen/informazioaren kontsultara sartzeko.

— B ahalmenak: Interesdunak eskatuta nahiz ofizioz abiarazitako prozeduretan eskaerak eta idazkiak, errekursoak eta erreklamazioak aurkeztea, akzioetan atzera egitea, eskubideei uko egitea, betebeharrak hartu edo aitortzea, eta ordezkatuari dagozkion jarduketa guztiak egitea, eta ahalmena ematea deskribatutako jarduketekin lotutako datuen/informazioaren kontsultara sartzeko, bai eta jakinarazpenak jasotzeko ere (D ahalmenean adierazitako jakinarazpenak izan ezik). Era berean, ahalmena ematen du ordaintzeko modua aldatzeko, ordainketa-gutunak eskuratzeko, eta ahalmena ematen den prozedurak izapidetzean sortzen diren zorrak geroratzeko.

— C ahalmenak: Ordezkatutako pertsonaren datuen/ informazioaren kontsultara sartzea.

— D ahalmenak: Administrazioak prozedurak ofizioz hasiko dituela adierazten duten jakinarazpenak jasotzea.

Horrez gainera, zor guztiak kudeatzeko ahalmena baliatu ahal izango da egoitza elektronikoaren bidez, sortu diren prozedura edozein dela ere.»

**Hamar.** Berridatzi egin da 71. artikuluko 2. apartatua, eta honela geratu da idatzita:

«2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 45.2 artikuluan xedatutakoaren eraginetarako, ordezkaritza egiaztatu dela ulertuko da kasu hauetan:

a) Hura existitzen dela idatzita dagoenean eta indarrean badago erregistro publiko batean, bereziki Bizkaiko Foru Aldundiko Ahalordetzeen Erregistro Orokorrean.

b) Agiri publiko edo agiri pribatuan ageri denean, notarioz legitimatutako sinadurarekin.

c) Administrazio organo eskudunaren aurrean agertuz ematen denean. Hori dilijentzian dokumentatu ahalko da.

d) Ordezkaritza baliabide elektronikoan, informatikoan edo telematikoen bitartez emandako agirian dagoenean, zerga-administrazioak ezarritako bermeak eta betekizunak beteta.

e) Tributuen kudeaketa errazteko, zerga-administrazioak beste sistema batzuk ezartzen dituen ordezkaritza eman dela ulertzeko. Zehazki, ordezkaritza emandakotzat joko da zergapekoak Zerga Administrazioak horretarako eman dion gakoa ematen duenean.»

**Hamaika.** 71. artikuluari 7. zenbakia gehitzen zaio; eta hau da edukia:

«7. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 13ko 89/2020 Foru Dekretuan (ahalordetzeen erregistro elektroniko orokorra sortu eta arautzeari buruzkoa) xedatutakoaren arabera, Ogasun eta Finantza Sailak baimena emango du, onetsiriko erakunde edo elkarteekin lankidetzaz-hitzarmenak edo -akordioak eginez, bai eta alde zuzenetik interesdunak eskaturik banakako gaituntza emanez ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabil dezaten elkarteko bazkide edo kide diren elkargokide profesionalak, hirugarren batzuen izenean; horiek kasuan-kasuan behar den ordezkaritza eman beharko diete, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrearen 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera emandako ordezkariak Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 13ko 89/2020 Foru Dekretuan, ahalordetzeen erregistro elektroniko orokorra sortu eta arautzekoari buruzkoan, aurreikusitako moduan inskribatu beharko dira.»

**Hamabi.** I. atal bat gehitu da egungo 74. eta 75. artikulua barne hartzen dituen III. tituluko II. kapituluaren, izenburu honekin:

«1. atala. Jakinarazpenak»

**Hamairu.** 2. atal bat gehitu da III. tituluaren II. kapituluaren, 75. artikulua ondoren (egungo 75 bis artikulua jasotzen duena), eta 75ter eta 75 quater artikulua berrien ondoren, izenburu honekin:

«2. atala. Ogasun eta Finantza Sailak bitarteko elektronikoak erabiliz egiten dituen jakinarazpenak eta komunikazioak»

**Hamalau.** Berridatzi egin da 75 bis artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«75 bis artikulua. Jakinarazpen elektronikoak

1. Araudi honen 36. artikulua 2. eta 3. apartatuaren aipatzen diren interesdunek bitarteko elektronikoak baino ez dituzte erabili behar zerga-administrazioarekin komunikatzeko.

Era berean, jakinarazpen bitarteko elektronikoen bidez egin ahalko dira interesdunek bitartekoak erabiltzea espresuki baimendu eta lehentasunezkoztat jo dituzten kasuetan.

2. Jakinarazpen-sistemari esker bi gauza ziurtatu behar dira: batetik, jakinarazi nahi den egintza zein egun eta ordutan jarri den interesdunaren eskura; bestetik, interesduna zein egun eta ordutan sartu den jakinarazpenaren edukira, une horretatik aurrera ulertuko baita jakinarazpen hori eginda dagoela, ondorio guztietarako.

3. Zergapekoak jakinarazpen elektronikoko sisteman nahitaez sartzea eragin zuten inguruabarrak desagertzen direnean, bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaio sistema horretatik kanpo geratu dela, eta jakinarazpen horrek ondorioak sortu eta biharamunean geratuko da sistematik kanpo.

Baina, zergapekoak, jakinarazpen elektronikoko sisteman nahitaez sartu aurretik bitarteko elektronikoa lehentasunezkoa jotzen duela adierazi badu, orduan, sistema horretan jarraituko du».

**Hamabost.** 75 ter eta 75 quater artikulua berriak gehitu dira, eta honela geratu dira idatzita:

«75 ter artikulua.—Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoen alderdi orokorrak

1. Ogasun eta Finantza Sailak egin behar dituen jakinarazpen eta komunikazio guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez gauzatuko dira, egoitza hori arautzen duen araudi honetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta, eta beronen 75 quater artikuluan jasotako salbuespenak gorabehera.

Era berean, jakinarazpen eta komunikazio elektronikoko beste sistema batzuk gaitu ahal izango dira, baldin eta jasota geratzen bada interesdunak berriazko araudian ezarritako epean eta baldintzetan jaso dituela.

Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpena nahitaezkoa denean, araudi honen 36. artikulua 2. eta 3. apartatuaren xedatutakoarekin bat, edo interesdunak berriaz adierazi duenean bitarteko hori lehentasunezkoa dela, jakinarazpena edo komunikazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertuz baino ez da egingo.

2. Jakinarazpenerako sistema elektronikoa lehentasunezkoztat jotzen dela adierazteko, alta-eskaera egin behar da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa horretarako beren-beregi jarritako atalean. Adierazpen horrek eskaera jaso eta biharamunetik aurrera emango diren jakinarazpen eta komunikazioetan izango ditu ondorioak, non eta artikulua honen 1. apartatuaren bigarren paragrafoan jasotako sistemen araudi espezifikoak ez duen beste epe bat ezartzen.

3. Jakinarazpen elektronikoko sistemak aukera emango du egiaztatzeke zer egun eta ordutan izan duen eskuragarri interesdunak jakinarazten zaion egintza eta zer egun eta ordutan eskuratu duen interesdunak egintzaren edukia. Izan ere, une horretatik aurrera, jakinarazpena gauzatzat joko da ondorio guztietarako.

4. Bitarteko elektronikoak zein ez-elektronikoak erabiltzearen ondorioz egintza beraren jakinarazpen bat baino gehiago egiten bada, ulertuko da zuzen egindako lehenengo jakinarazpena egiten denetik sortzen direla jakinarazpenaren ondoriozko efektu juridiko guztiak, kasuan kasuko errekurtsoak jartzeko epearen hasiera barne.

5. Baldin eta egiaztatzen bada jakinarazpen elektronikoa eskuragai jarri eta egutegiko 20 egun igarota haren edukira ez dela sartu, orduan, ulertuko da jakinarazpena ez dela onartu, eta horrek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko Foru Arauaren 109.2 artikuluan ezarritako ondorioak izango ditu, non eta ofizioz edo interesdunak eskatuta ez den egiaztatzen jakinarazpena eskuratzea ezinezkoa izan dela arrazoi tekniko edo materialengatik.

6. Interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiren egoitza elektronikoa ezartzen den atalean eskatu ahal izango dute jakinarazpen elektronikoko sistema ez izatea modu esklusiboan erabiliko den sistema, hurrengo jakinarazpen edo komunikazioak ez jakinarazteko modu esklusiboan bitarteko elektronikoen bidez, eta administrazio- araudi orokorrean onartutako beste bitartekoak ere erabiltzeko. Hori ezin izango dute eskatu beren zerga-betebeharrak betetzeko eta Ogasun eta Finantza Sailarekin egoitza elektronikoa bidez harremanetan jartzeko betebeharrak duten pertsonak edo entitateak.

Halakoetan, bajak eskaera jaso eta biharamunetik aurrera emango diren jakinarazpen eta komunikazioetan izango ditu ondorioak, non eta artikulua honen 1. apartatuaren bigarren paragrafoan

jasotako sistemen araudi espezifikoak ez duen beste epe bat ezartzen. Bestela, eskaera aurkezten den egunaren ondorengo 15 egunen barruan gauzatuko da baja.

7. Agerraldi bidezko jakinarazpenaren berezko ondorioak sortuko ditu interesdunek dagozkion administrazio-jarduketan edukia eskuratzeko egiten duten sarbide elektronikoak, baldin eta sarbide hori jasota geratzen bada.

75 quater artikulua. Bitarteko elektronikoak erabiliz egindako jakinarazpenen edo komunikazioen inguruko salbuespenak

1. Ogasun eta Finantza Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 107.etik 110.era bitarteko artikuluetan aipatzen diren bide ez-elektronikoak, lekuak eta moduak erabili ahal izango ditu jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko, honako kasu hauetan:

a) Zergapekoak edo haren ordezkariak, Ogasun eta Finantza Sailaren bulegoetan agertu, eta une horretan jakinarazpen edo komunikazio pertsonala eskatzen duenean. b) letran adierazitako inguruabarrak jazotzen badira, zergapekoak izan izango du baliatu aukera hori.

b) Zergak aplikatzeko prozeduren eraginkortasuna eta —hala denean— lastertasuna bermatzeko, Administrazioak egokiagotzat jotzen duenean elektronikoak ez diren beste bitarteko batzuk erabiltzea jakinarazpena egiteko.

2. Inoiz ez dira bitarteko elektronikoz egingo honako jakinarazpen eta komunikazio hauek:

a) Jakinarazi beharreko egintzarekin batera formatu elektronikora bihurtu ezin den elementuren bat igorri behar denekoak.

b) Beren araudi espezifikoarekin bat zergapekoaren egoitza fiskalean edo araudiak horretarako ezarritako beste leku batean pertsonatuz edo elektronikoa ez den beste edozein modutan egin behar direnak.

c) Kreditu-entitateetan irekitako kontuetan diruaren enbargoa bitarteko elektronikoen bidez egiteko prozedurari atxikitako kreditu-entitateei zuzendutakoak.

d) Ogasun eta Finantza Sailaren zerga-bilketaren kudeaketan lankidetzaz-zerbitzuan aritu bitartean lankidetzaz-erakunde diharduten kreditu-entitateei zuzendutakoak.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da eragozpen izango beronetan aipatutako jakinarazpen edo komunikazioetako batzuk egiteko baliabide teknikoak erabiltzeko, haien araudi espezifikoarekin bat. »

**Hamasei.** Edukirik gabe geratzen da lehenengo xedapen gehigarria.

**Bigarrena.** 2021ko otsailaren 28tik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudian, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen:

5. apartatua gehitu zaio 70. artikuluari. Honela idatzita geratu da:

«5. Zergen ondorioetarako bakarrik, zerga-administrazioak ofizioz inskribatuko du legezko ordezkariak ahalordetzeen erregistro elektronikoko orokorrean, honako kasu eta baldintza hauetan:

a) Ezkontideetako edo izatezko bikotekideetako bat hiltzen bada, ezkontidearen edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen alde. Inskribatutako ordezkariak 5 urteko balioa izango du, heriotzaren datatik zenbatzen hasita.

Letra honetan aipatzen den kasuan, ezkontideak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak hirugarren bati ordezkariak ematen dionean zerga-administrazioaren aurrean, ordezkariak hori eman zaiola ulertuko da hildako zergadunari dagokionez, berariaz kontrakoa adierazten ez bada.

Letra honetan xedatutakoa gorabehera, hildakoaren oinordekoek aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izango dute ordezkariaren ofiziozko inskripzioaren aurka, ezkontidearen edo bizirik dagoen izatezko bikotekidearen alde, eta, horretarako, beren izaera egiaztatu beharko dute.

b) Familia-unitate bateko kide diren zergadun adingabeen kasuan, bi gurasoen alde, edo guraso bakarraren alde, bat bakarrik izanez gero. Hori guztia, kontrakoren frogasinesgarririk ezean.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34.3. artikuluan adierazten diren entitateen kasuan, bertako kide, jaraunse, erkide edo partaideen alde. Inskribatutako ordezkariak 5 urteko balioa izango du, inskribatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Letra honen aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, bertan aipatzen diren erakundeek aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izango dute, ordezkariaren ofiziozko inskripzioaren aurka, kide, jaraunse, erkide edo partaideen alde. Horretarako, erakunde horien legezko ordezkariak beren izaera egiaztatu beharko dute, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 44.3 artikuluan ezarritako baldintzetan.

d) Nortasun juridikodun sozietate eta erakundeak likidatu gabe azkentzen edo desegiten direnean ondorengoan alde, inguruabar hori modu frogagarrian agertzen denean Zerga Administrazioan.



Inskribatutako ordezkariak 5 urteko balioa izango du, azkendu edo desegiten den egunetik zenbatzen hasita».

**Hirugarrena.** Aldaketa hauek sartu dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudian, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen:

**Bat.** Berridatzi egin da 1. artikuluko 2. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:

«2. Araudi hau zerga-bilketaren kudeaketari aplikatuko zaio, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudian aurreikusi ez den orori dagokionez».

**Bi.** Berridatzi egin da 27. artikuluko 2. apartatua, eta honela geratu da idatzita:

«2. Ziurtagiriaren araudi espezifikoak besterik ezartzen ez badu, zerga-ziurtagirik 6 hilabeteko balioa izango dute ematen diren egunetik aurrera, ziurtagiriaren edukia zehazten duten inguruabarretan aldaketarik gertatzen ez den bitartean. Salbuespena izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 180. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren ziurtagiriak, horien balioa 3 hilabetekoa izango baita».

**Hiru.** Berridatzi egin da 29. artikuluko 2. apartatua, eta honela geratu da idatzita:

«2. Beste hainbat jardunen artean, zerga-kudeaketaren eremuan, zergen arloko laguntza autolikidazioak eta aitorpenak egiteko eta zergapekoari likidazio-proposamenen berri emateko izan ahalko da, araudi honetako 90. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzetan».

## **Xedapen Gehigarri**

**Bakarra. Zerga-betebeharrak betetzeko eta Ogasun eta Finantza Sailarekin harremanetan jartzeko bide telematikoak soilik erabiltzeko betebeharra.**

**Bat.** 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, eta bide telematikoak erabiltzeko betebeharra aldeztu aurretik ezarrita ez badago, nahitaezkoa izango da bide telematikoak erabilita betetzea zergaldia, likidazio- edo aitorpen-aldia 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten zaizkien zergei dagozkien zerga-betebehar guztiak, bai eta data horretatik aurrera sortutakoak ere, kasuan kasu. Halakoetan ere nahitaezkoa izango da Ogasun eta Finantza Sailarekin bide telematikoz harremana izatea, eta jakinarazpenak ere bide horretatik jasoko dira.

Ogasun eta Finantza Sailarekin bide telematikoz betebeharrak betetzeko eta harremanak izateko betebeharra, jakinarazpenak bide horretatik jasotzea barne, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera egindako eragiketei dagokien informazioa emateko betebehar orokorreari ere aplikatu behar zaie.

**Bi.** Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren foru-agindu bidez ezarriko da baliabide telematikoak erabiliz soilik bete beharko diren zerga-betebeharren zerrenda (aurreko apartatuan adierazten da), bai eta, hala badagokio, betebehar horiek betetzeko baldintzak eta bazterketak ere.

## **Xedapen Iragankorra**

**Lehenengoa. Zerga-arloko jarduketak eta prozedurak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egitea, borondatez, 2021eko abuztuaren 1era arte, eta Bizkaibai zerbitzuaren bidez, 2021eko abuztuaren 1etik 2023eko abuztuaren 1era arte.**

1. Zergadunek, 2020ko azaroaren 30etik 2021eko abuztuaren 1era bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin ahal izango dituzte egoitza elektronikoan bertan ezartzen diren izapide jakin batzuk.

2021eko abuztuaren 1etik 2023eko abuztuaren 1era arte, zergadunek Bizkaibai zerbitzuaren bidez jarduten jarraitzeko aukera izango dute; zerbitzu horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuak onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 42.etik 49.era bitarteko artikuluetan

(biak barne) xedatutakoari jarraituko dio —2021eko abuztuaren 1era arte indarrean egongo den idazketa—, 47. artikuluari eta zergadunek erabili beharreko identifikazio-, autentifikazio- eta sinadura-sistemei dagokienez izan ezik. Izan ere, lehen kasuan (47. art.), aplikatzekoa izango da Ogasun eta Finantza Sailarekin harremanak izateko sistema telematikoa erabiltzeko betebeharra; identifikazio-, autentifikazio- eta sinadura-sistemak direla eta (aipatutako araudiaren 36. eta 37. artikuluetan ezarriak), 2021eko abuztuaren 1etik aurrera aplikatu beharreko idazketari jarraituko zaio.

2. Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 13ko 89/2020 Foru Dekretuaren (ahalordetzeen erregistro elektronikoko orokorra sortu eta arautzeari buruzkoa) xedapen iragankor bakarrean xedatutakoaren babesean, 2020ko azaroaren 30etik 2021eko abuztuaren 1era arte, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren (zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen, 2021eko abuztuaren 1era arteko indarraldia duen idazketan) 49. artikuluan aipatzen diren ordezkari gaitu guztiek egun horretara arte Bizkaibai zerbitzuaren bidez egiten zituzten jarduketak borondatez egin ahal izango dituzte, modu berean eta ondorio juridiko guztiekin, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, ordezkaturako pertsonen altak, bajak eta aldaketak Bizkaibai zerbitzuaren bidez soilik egingo dira, 2021eko abuztuaren 1era arte.

Oro bat, 2021eko abuztuaren 1etik 2023eko abuztuaren 1era arte, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuak onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiak —2021eko abuztuaren 1era arte indarrean egongo den idazketa— 49. artikuluan aipatutako ordezkari gaituek Bizkaibai zerbitzuaren bidez jarraitu ahal izango dute, nahi izanez gero, zerbitzu hori erabiliz une horretara arte egiten zituzten jarduketak izapidetzen, baina bakarrik zegoeneko ordezkatzan zituzten pertsona berberei dagokienez eta orduko irismenarekin.

Beraz, 2021eko abuztuaren 1etik aurrera, ordezkaturakin lotutako altak, bajak eta aldaketak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez baino ezingo dira izapidetu, bai eta alta, baja eta aldaketa horietatik eratorritako ondorengo jarduketak ere.

3. Aurreko paragrafoan aipatzen den kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez jarduteko ordezkari-tza-mailak bat etorriko dira Bizkaibain jarduteko esleituta dituzten ordezkari-tza-mailekin, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriko (2021eko abuztuaren 1era arte indarrean dagoen idazketan), baldin eta jarduketa horiek egoitza elektronikoen bidez egin badaitezke gauzatzen diren unean, ondoren adierazten diren baliokidetasunen arabera:
  - a) Bizkaibairen 1. maila bat etorriko da Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 69 bis artikuluan aipatzen diren A ahalmenekin.
  - b) Bizkaibairen 2. eta 3. maila bat etorriko da Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 69 bis artikuluan aipatzen diren B ahalmenekin.
  - c) Bizkaibairen 4. maila bat etorriko da Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 69 bis artikuluan aipatzen diren B ahalmenekin.
  - d) Aurreko letretan Bizkaibairen 2., 3. eta 4. mailako bakoitzari esleitutako ahalmenez gain, aipatutako hiru maila horietan sartuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 69 bis artikuluko azken paragrafoan aipatzen den zorrak kudeatzeko ahalmena.

**Bigarrena. Bizkaibai zerbitzua telematikoki erabiltzeko hitzarmenen edo akordioen esparruan emandako ordezkari-ahalordeen balioa, 2021eko abuztuaren 1etik aurrera Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez jarduteko.**

1. 2021eko abuztuaren 1etik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 49. artikuluan ezarritakoaren arabera emandako ordezkari-ahalek, ordura arte indarrean zegoen idazkeran, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez jarduteko baliozkotasunari eutsiko diote, aurreko xedapen iragankorraren 3. apartatuan jasotako baldintza eta baliokidetasunekin.
2. Xedapen iragankor honen aurreko 1. apartatuan aipatzen diren ahalordeek Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onartutako Araudiaren 69.bis artikuluan (2021eko abuztuaren 1etik aurrera indarrean dagoen idazketan) araututako ahalmen-multzoetara egokitu beharko dute, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren foru- agindu bidez ezartzen diren baldintzetan.

### **Xedapen Indargabetzaile**

**Bakarra. Arau-indargabetzea.**

2021eko abuztuaren 1etik aurrera indargabetuta geratzen dira bertan ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak, eta, bereziki, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 20ko 50/2012 Foru Dekretua, Ogasun eta Finantza Sailak bitarteko elektronikoak erabiliz egiten dituen jakinarazpenak eta komunikazioak arautzen dituenak, eta 342/2008 Foru Agindua, uztailaren 5ekoa, zergadun batzuek agiri jakin batzuk Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituenak.

### **Azken Xedapen**

**Bakarra. Indarrean jartzea.**

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta beronen artikuluetan ezarritako ondorioak izango ditu.